

IPUÇCHA, LEHEN DEITURA. Guk ere lehengo lepotik bu-  
rua. Berriz ere hemen gaituzu «giputzez». Izengoitia deitura  
bihurtu zen jakitea ez bait da gauza erraza. Uste hori ziurta-  
tzerik ez dugu kaso honetan behintzat.

1984ko *Egan*-en 3-4 zenbakiaren 144-145 orrialdeetan XIV  
eta XV. mendeko *Guipus* eta *Guipuza* deituradun pertsonaien  
berri eman genuen. Urte bereko 5-6 zenbakiaren 146. orrial-  
dean gure egunotan mugazandik euskal kulturaren inguruan  
ari den Marie-Pierre *Iphutcha*-ren jatorria ber-bera zela agerra-  
raziz. Baina, gure entzumenera iritsi zaigu horietaz zalantzaren  
bat izan den zurrumurrua. Batez ere azkenekoan *G*-ren galera  
nabari delako

XI eta XII. mendetan *Ipuzcoa* agertzen zaigu eta ez *Guipuz-  
coa*. Beraz, aintzinagoko forma dugu Marie-Pierrereña. Zaha-  
rragoa zelan gorde den? Hori da gu geu ere harritzen gaitue-  
na, eta agiriak agiri, lehentasun horren kidekorik bada XI.  
mendean bertan. Olazabaltarrak San Juan de la Peña-ra egin  
zuten donazioaz 1925 eta 1048. urteko agiriak aski ezagunak dira  
gure probintziako historiaz zerbait arduratu denarentzat, eta  
hor, 1048. urtekoan. Gala de *Ipuçcha* garbi asko agertzen zaigu.